

Prentsa dosierra

Bertsolari Gazteen BBK Sariaketeak bertsolari gazteen plazaratzea du helburu nagusia. 1992an izan zuen lehenengo edizioa, eta aurten, beraz, 32 urte beteko ditu taldekako sariaketa honek.



- Ezaugarri orokorrak
- Helburuak
- Taldeak. Parte hartzaileak
- Saioak
- Ariketak
- Sariak
- Gonbidapena
- Informazio bideak

Ezaugarri orokorrak

32. urtea du bertsolari gazteei zuzendutako sariketak, eta edizioz edizio behar berriei erantzuteko aldaketak izaten ditu sariketak.

- Bertsolari Gazteen BBK Sariketea taldean jokatzen den sariketa da, hau da, bertsolariek taldean hartzen dute parte. Bi multzotan banatuko dira taldeak:
 - Gaztetxoak (A): 18 urtera arteko gazteak
 - Nagusiak (B): 25 urtera artekoak.
- **Taldeen osaketa.** Edizio honetako berrikuntza taldeen osaketan dago. Iaztik eskualdeak oinarria bai, baina ez dira taldea osatzeko irizpide nagusia izan. Horrez gain:
 - A mailakoek, orain arte moduan, hirukoteak osatuko dituzte
 - B mailakoetan aldaketa egongo da, ordea, eta bikoteka hartuko dute sariketan parte.
- Eliminazio sistemako txapelketa da:
 - A multzoan sei taldek hartuko dute parte. Egitura: hiru kanporaketa, bi finalaurreko eta finala izango dituzte
 - B multzoan sei taldek hartuko dute parte. Egitura: bi finalaurreko eta finala jokatuko dituzte.
- Saio bakoitzean puntu gehien batzen dituen taldeak egingo du fase bakoitzean aurrera, eta horrela, multzo bakoitzeko talde bi helduko dira finalera. A multzoko lehenengo fasean, puntuazioz sailkatuko da laugarren taldea hurrengo fasera.

Sariketaren helburuak

Hainbat helburu ditu **Bertsolari Gazteen BBK Sariketeak**. Helbururik esanguratsuena bertsolari gazteen plazaratzean laguntzea da. Plazaratze honetan lagungarria da taldearen babesa.

Sariketak, zelan ez, bestelako helburu batzuk ere baditu: besteak beste, sei bertso saio antolatuta euskalgintzari eta kulturgintzari ekarpena egitea.

Publikoari dagokionez, kanporaketetako ikusleak ikastetxeetan bertsolaritza lantzen ari diren gaztetxoak izango dira, eta finalaurrekoetako publikoa, euskara ikasleak izango dira, batez ere. Lehenengo hiru saioak goizez jokatuko dira, eta gainontzeko hirurak (finalaurrekoak eta finala) arratsaldean.

Taldeak. Parte hartzaileak

A multzoko taldeak:

- *Xarmengariak gira*: June Legarreta (Meñaka), Emile Zabala (Mungia), Enara Gallastegi (Dima)
- *Puntuak eta komak*: Amañur Betanzos (Bilbo), Ekhi Zuluaga (Igorre), Iradi Barrenetxea (Artea)
- *AP8ko txikia*: Iraia Lauzirika, Garazi Ibarretxe (Zornotza), Kelmene Abaitua (Berriz)
- *Arrakalak loratu*: Garazi Uriarte (Berriz), Malen Bilbao (Arantzazu), Aiala Iurtia (Arantzazu)
- *Anitzak*: Adur Lopez de Garcia (Sodupe), Aimar Marcos (Zalla), Nahia Ruiz de Arbulo (Zalla)
- *Sagutxo Kaskarinak 2.0*: Amaia Gallastegi (Zornotza), Naroa Iturrioz (Zornotza), Maddi Aurtenetxe (Zornotza)

B multzoko taldeak:

- *Ai Zapotxin!*: Bittor Altube (Abadiño) eta Joseba Ortuzar (Larrabetzu)
- *LGBTaket*: Ainhoa Gorostiaga (Gamiz-Fika) eta Izaro Bilbao (Mungia)
- *Malla 2*: Aritz Katarain (Mallabia) eta Irune Basagoiti (Ermua)
- *Okerbidea*: Iruri Altzerreka (Garai) eta Peru Irastortza (Getxo)
- *Rara avis*: Haizea Telleria (Bilbao) eta Maite Sarasola (Bilbo)
- *Team Rocket*: Ixone Asategi (Durango) eta Janire Arrizabalaga (Gernika-Lumo)

Datak. Saioak

Azaroaren 4an hasiko da bertsolari gazteen sariketa, eta abenduaren 5ean amaitu. Aurten finala Zornotzan izango da. Batetik, Bizkaiko erdigune geografikoa delako, eta bestetik, sariketa Durangotik hurbil kokatu gura izan dugulako, egun horietan, euskal kulturgintzaren erreferente handi den azokatik hurbil.

SAIOAK ETA SAILKAPENA

Azaroak 4 10:30	Bilbo Urretxindorra Ikastola	Parte hartzaileak: A: Xarmengarriak gira – Puntuak eta komak
Azaroak 6 11:30	Igorre Arratia BHI	Parte hartzaileak: A: AP8ko txikia - Arrakalak loratu
Azaroak 11 10:00	Zalla Mimetiz HLHI	Parte hartzaileak: A: Anitzak - Sagutxo kaskarinak 2.0
Azaroak 18 18:00	Gernika-Lumo Elai Alai aretoa	Parte hartzaileak: A: 1. saioko irabazlea - 2. saioko irabazlea B: Team Rocket - Ai Zapotxin! - Malla2
Azaroak 20 17:30	Mungia Mugire Txokoa	Parte hartzaileak: A: 3. saioko irabazlea – puntuazino altuena eskuratzen duen taldea B: Okerbidea – LGBTaket – Rara Avis
Abenduak 5 18:30	Zornotza Auditoria	Parte hartzaileak: A eta B: 5. saioko irabazleak - 6. saioko irabazleak

Ariketak

A mailan, aurreko edizioetako ariketa berdinak egin beharko dituzte fase guztietan; hau da, lau oinak emanda, zortziko txikia, zortziko handia, bertso bat lehen puntua emanda, beste bat azken puntua emanda eta bakarka gai bati azken bertsoa.

B mailan, aldiz, aldaketa batzuk izango dira. Maila honetako bertsolariek zortziko handiko ofizioa, zortziko txikikoa, potokumeak eta puntu erantzunak elkarri jarrita osatu beharko dute saioa.

Sariak

Edizio honetako beste **aldaketa handia** sariak dira.

- A mailakoek, orain arte moduan, Elkar dendetan erabiltzeko, hau da, kulturan gastatzeko, bonoa jasoko dute. Bonoaren zenbatekoa handitu egin dugu. Horrez gain, finalera heltzea lortzen duten bi taldeek sorpresa txiki bat ere izango dute.
- B mailakoek, orain arteko moduan, Elkar dendetan erabiltzeko bonoaz gain (kasu honetan ere handiagoa), sari ekonomikoa ere izango dute aurten. Lehenengo fasera arte heltzen direnek 100€ bikoteko, finalera heltzen den bikoteak 200€, eta bikote irabazleak 500€. Horrez gain, bikote irabazleak txapela ere jasoko du.
- Azken urteetan bezala, kantakera onenaren saria ere egongo da. Finalean banatuko da, baina sariketa guztian zehar abestu duten bertsolari guztiek izango dute sari hau eskuratzeko aukera.

Gonbidapena

Antolakuntzak finalaurrekoak, eta bereziki, finala ikustera etortzeko gonbidapena luzatu gura dio publikoari.

Bertsolari gazteen BBK Sariketak ohiko plazek ez dituzten ezaugarriak ditu, eta horiek ikusi eta gozatzeko deia luzatu gura du antolakuntzak. Izan ere, Bizkaia osoko bertsolari gazteak batuko dituen sariketa da.

Informazio bideak

Txapelketako antolatzailea BBK da, eta laguntzaileak Bizkaiko Bertsozale Elkartea eta Bizkaiko Ikastolen Elkartea.

Sariketari buruzko informazioa hainbat bidetatik eskura daiteke.

- Webgunea: www.bertsozale.eus/bizkaia
- Sare sozialak:
 - Facebooken Bizkaiko Bertsozale Elkartearen orrialdea.
 - Twitter: Bizkaiko Bertsozale Elkartea (@bbertsozale)
 - Instagram: Bizkaiko Bertsozale Elkartea
- Kontaktua: bizkaia@bertsozale.eus